| 2018KO AZAROAREN 28AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA. | ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 28 DE NOVIEMBRE DE 2018. |
|---|---|
| ============================ | ============================ |
| **BERTARATUAK** | **ASISTENTES** |
| **LEHENDAKARIA** | **PRESIDENTE** |

Imanol Landa Jauregi jn.

| **ALKATEORDEAK** | **TENIENTES DE ALCALDE** |
|---|---|

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)
Koldo Iturbe Mendilibar (EAJ-PNV)
Joseba Arregui Martínez (EAJ-PNV)
José Luis Landa Arteche (PSE-EE (PSOE))

| **ZINEGOTZIAK** | **C O N C E J A L E S** |
|---|---|

Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ/PNV)
Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)
Elena Coria Yanguas (EAJ/PNV)
Amaia Agirre Muñoa (EAJ/PNV)
Irantzu Uriarte Gómez (EAJ/PNV)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP)
Raquel González Díez-Andino (PP)
Miguel Ibabe Botella (PP)
Susana De Cos Yañez (PP)
Paula Amieva Clemente (GUK)
Susana Andollo González (GUK)
Francisco Enrique Prada Olleta (GUK)
Enrique Olaso García (GUK)
Oier Iturralde Fernández (EH BILDU)
Maite Arraiza Aramendia (EH BILDU)
Ibon Rodríguez Larrinaga (EH BILDU)

Nerea Guijarrubia García (EH BILDU)
Teresa Escalante Reina (PSE-EE (PSOE))
Santiago Sainz Robles (C'S)

| **IDAZKARI NAGUSIA** | **SECRETARIO GENERAL** |
|---|---|

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Imanol Landa Jauregi jauna dela, egun horretako goizeko bederatzietan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita kontu-hartzaile nagusia ere, Nuria Hernández Soto andrea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las nueve horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más la Interventora general, Nuria Hernández Soto.

Alkate jaunak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**158.- 2018KO URRIAREN 31N EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA ONESTEA.**

**158.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 31 DE OCTUBRE DE 2018.**

2018ko urriaren 31n Getxoko Udalbatzak egindako ohiko bilkuraren akta aho batez onestea.

Se aprueba por unanimidad el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 31 de octubre de 2018.

**LEHENDAKARITZA ETA GIZARTE ZERBITZUAK**

**PRESIDENCIA Y SERVICIOS SOCIALES**

**159.- EMAKUMEENGANAKO INDEARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNARI**

**159.- DACIÓN DE CUENTA DEL ACUERDO DE LA JUNTA DE PORTAVOCES RELATIVO AL DÍA**

**BURUZKO BOZERAMALE BATZORDEAREN AKORDIOAREN BERRI EMATEA.**

**INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES.**

Akordioa irakurri ostean, Keltse Eigurenek adierazi du osoko bilkurara ekarri dela bozeramale batzordean aho batez onartutako adierazpena. Hura irakurri eta adierazpenaren funtsezko edukia eta talde politiko guztiek aho batez hartutako erabakia izatea azpimarratu ditu.

Tras dar lectura del acuerdo interviene Keltse Eiguren que manifiesta que se trae al Pleno la declaración aprobada por unanimidad de la Junta de Portavoces que se ha leído y hace hincapié en el contenido fundamental de la declaración y en la unanimidad de todos los grupos políticos.

Susana Andollok hartu du hitza, hauxe adierazteko: GUK adierazpenaren alde dago, edukiari jarraiki, eta udalak hitzartutakoa nabarmentzen du. Bere taldeak Berdintasun Kontseiluan parte hartzeko borondatea adierazi du, helburuak ezarri eta ondoren ebaluatzeko.

Susana Andollo interviene manifestando que GUK apoya la declración atendiendo a su contenido y resalta el compromiso que asume el ayuntamiento. Manifiesta la voluntad de su grupo de participar en el Consejo de Igualdad para fijar objetivos y evaluarlos posteriormente.

Alkatetzak proposamena eginda, Bozeramaileen Batzordearen akordioaren jakitun egon, ondorengo udal erakundearen adierazpenari doakionez:

A propuesta de la Alcaldía quedaron enterados de la siguiente declaración institucional adoptada por la Junta de Portavoces:

Azaroaren 25a dela eta, Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Egunean, indarkeria matxistatik libre egongo den gizartea eraikitzearekin dugun konpromisoa berretsi nahi dugu. Era berean, nazioarteko marko juridikoarekin bat, berriz azpimarratu behar dugu badagoela loturarik genero-arrazoiengatiko bazterkeria eta desberdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren artean, azken hori emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa bat bezala ulerturik.

Con motivo del 25 de noviembre, Día Internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres, queremos reiterar nuestro compromiso con la construcción de una sociedad libre de violencia machista. En línea con el marco jurídico internacional, reafirmamos el vínculo existente entre la discriminación y desigualdad por motivos de género y la violencia contra las mujeres, entendiéndola como una violación de los derechos humanos.

Testuinguru honetan, arreta jarri nahi dugu indarkeria matxistaren biktimek duten erreparazio-eskubidean.

En este contexto, queremos hacer hincapié en el derecho a la reparación de las víctimas de la violencia machista.

Erreparazio horrek egiarako eskubidea dakar; alegia, bizi izandako indarkeriaren, salaketaren eta emakumeen hitzen errelatoa egiazki entzuna izatea. Horren guztiaren xedea da hautsitako eskubideak lehengoratzea eta pairatutako indarkeriaren inpaktuak sozialki aitortzea. Indarkeria matxista hauek bizitzen dituzten emakumeen errelatoak zalantzan jartzen direnean, haien hitza gutxietsia izaten da, zikindua, are isilarazia. Halakoetan biktimizazio bikoitza gertatzen da: emakume biktimek jasandako minari lotsa eta erruduntasuna eransten zaio; bitartean, justifikatu egiten dira erasotzaileak.

Una reparación que implica el derecho a la verdad, a que el relato de la violencia vivida, la denuncia y la palabra de las mujeres, sean legítimamente escuchadas. Todo ello con el fin de conseguir la restitución de los derechos conculcados y el reconocimiento social de los impactos de la violencia sufrida. Cuando se sospecha o se ponen en cuestión los relatos de las mujeres que viven estas violencias machistas, su palabra es infravalorada, desacreditada, e incluso silenciada.  Se produce entonces una doble victimización, agravando el daño sufrido por las mujeres víctimas con sentimientos de vergüenza y culpabilidad, a la vez que se justifica a los agresores.

Tokiko Erakundeetatik gure egin behar dugu gizarte bat eraikitzean daukagun ardura sozial eta politikoa, gizarte horrek biktimen egiarako eskubidea bermatuko badu. BERDINSAREAtik, Berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako euskal udalen saretik, indarkeria matxistaren aurrean udal erantzunaren artikulazioa lantzen ari gara, nola-eta Istanbuleko Hitzarmenaren markoa egokituz eta biktimen erreparaziorako toki-praktikak garatuz.

Desde las instituciones locales debemos asumir nuestra responsabilidad social y política en la construcción de una sociedad que garantice el derecho a la verdad de las víctimas. Desde BERDINSAREA, Red de municipios vascos por la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres, se viene trabajando en articular la respuesta municipal ante las violencias machistas, ajustada al marco del Convenio de Estambul, y desarrollando prácticas locales para la reparación de las víctimas.

Ezinbestekoa da ematea ahotsa emakumeei, autoritatea beraien lekukotzari eta egiazkotasuna bizi izandako indarkeriari buruz egiten duten errelatoari.  Horrek esan nahi du indarkeriaz beharturiko emakumeen hitza aintzatetsi beharra dagoela, haien askatasuna berrezarri, hartara bizirik atera den pertsonatzat har daitezen eta beren komunitateetan eskubide osoko duintasun- eta herritartasun-zentzua berreskura dezaten.

Se hace necesario dar voz a las mujeres, autoridad a su testimonio y legitimidad a su relato de la violencia vivida.  Esto significa contar con la palabra de las mujeres violentadas para reparar el daño, restaurar su libertad para reconocerlas como supervivientes y para que puedan recuperar su sentido de dignidad y ciudadanía de pleno derecho en sus comunidades.

Horretarako, Getxoko Udalak ondokoak gauzatzeko konpromisoak hartzen ditu:

- Zerbitzuak hobetzen lagundu, sostengu-zerbitzuzko sare bat gauzatzearekin batera emakumeei arreta osoa bermatzeko bere onera etor daitezen, ahalduntze feminista eta banakako erreparazioa ikuspegi nagusi harturik.
- Bizirik atera diren emakumeak entzun, prebentzio eta segurtasun neurriak diseinatzeko, emakumeei bizirauten eta babesten balio dieten aurre-emate estrategiak balioan jarriz.
- Emakumeen ondoan egon, laguntza-zerbitzuetatik hasita eta bizi izandako indarkeriari buruzko beraien errelatoa sortzeraino, ulertzen baita indarkeria hori menderapen- eta kontrol-mekanismoa dela, gizarte-sistema patriarkalean eraikia.
- Ekimen kolektiboei laguntza eman (laguntza-taldeak eta plataformak), hartara bizirik irtendako emakumeek indarkeria horri buruzko errelato kolektiboa landu dezaten eta hautsitako eskubideak zein erreparazioa aldarrika ditzaten.
- Biktimen salaketa- eta erreklamazio-prozesuetan laguntza eman, emakumeek adierazitako testigantza eta beharrak egiaztatzeko.
- Aldiro indarkeria matxistaren biktimen aldeko aitorpen publiko eta erreparazioko ekitaldiak egin, indibidualak zein kolektiboak: emakumeen erresistentzia-memoria berreskuratzeko ikerketak; omenaldi-ekitaldiak; emakumeen memoria eta errelatoak jakinarazteko jardunaldiak; gazteekiko sentsibilizazio-tailerrak, e.a.

Para ello el Ayuntamiento de Getxo se compromete a:

- Contribuir en la mejora de los servicios en aras de desarrollar una red de servicios de apoyo para garantizar la atención integral a las mujeres en su recuperación, desde el enfoque feminista de empoderamiento y reparación individual.
- Escuchar a las mujeres supervivientes para diseñar medidas de prevención y seguridad, poniendo en valor las estrategias de afrontamiento que permiten a las mujeres sobrevivir, protegerse y empoderarse.
- Acompañar a las mujeres, desde los servicios de apoyo, a elaborar su propio relato de la violencia vivida, entendiéndola como mecanismo de dominación y de control construido en un sistema social patriarcal.
- Apoyar iniciativas colectivas (grupos de apoyo y plataformas) para que las supervivientes elaboren el relato colectivo de la violencia y reivindiquen los derechos vulnerados y la reparación debida.
- Apoyar los procesos de denuncia y reclamación de las víctimas, legitimando el testimonio y las necesidades expresadas por las mujeres.
- Realizar actos periódicos de reconocimiento público y reparación de las víctimas de violencia machista, tanto individuales como colectivas: investigaciones para recuperar la memoria de resistencia de las mujeres, actos de homenaje, jornadas para dar a conocer la memoria y los relatos de las mujeres, talleres de sensibilización con jóvenes, etc.

- Elkarlanean jardun mugimendu feministako ordezkariekin, adituekin eta indarkeria matxistatik bizirik irtendako emakume biktimen kolektibo eta elkarteekin.

Era berean, herritarrak gonbidatzen ditu, EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA dela eta, instituzio eta agente sozial desberdinek deitutako deialdi eta ekimenetara.

- Trabajar en colaboración con las representantes del movimiento feminista, expertas y colectivos y asociaciones de mujeres víctimas / supervivientes de violencia machista.

Asimismo, invita a la ciudadanía a participar en las diferentes iniciativas que, en torno al Día internacional contra la violencia hacia las mujeres, sean convocadas por los agentes institucionales y sociales.

**160.- 2018KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNARI BURUZKO BOZERAMALE BATZORDEAREN AKORDIOAREN BERRI EMATEA.**

Akordioa irakurri ondoren, Santiago Sainzek adierazi du adierazpena heldu zenean horrekin bat egitea planteatu zela, eta gogorarazi du errespetatu beharreko kultur ondarea dela, ez dela galdu behar beste hizkuntza zahar batzuk galdu diren moduan. Euskarari eusteko borrokak ez du inposizioa ekarri behar, adostasuna baizik, eta ez du ahalbidetu behar herritarren arteko desberdintasunak sortzea; horregatik uste du enplegu publikoa eskuratzeko merezimendua bakarrik izan behar dela, eta bere plazaren baldintzen arabera bidezko neurrian balioestea, inoiz ez baldintza. Azkenik esan du euskara guztion ondarea dela eta Espainiako ondarea dela.

Oier Iturraldek hitza hartu du, EH Bildu adierazpenarekin bat datorrela adierazteko. Eskerrak eman ditu Santiago Sainzen adierazpenaren zati batengatik, euskararen kultur balioa nabarmentzen duen heinean, baina ez dago ados euskara Espainiako ondarea izatearekin, zeren eta Espainia baino

**160.- DACIÓN DE CUENTA DEL ACUERDO DE LA JUNTA DE PORTAVOCES RELATIVO AL DÍA INTERNACIONAL DEL EUSKERA, 2018.**

Tras darse lectura al acuerdo interviene Santiago Sainz que indica que cuando llegó la declaración se planteó sumarse a la misma y recuerda que el euskera es parte del acervo cultural que hay que respetar y evitar que desaparezca como ha ocurrido a otras lenguas antiguas. La lucha por su mantenimiento no puede llevar a la imposición sino al consenso, ni puede permitir que el euskera genere desigualdades entre la ciudadanía, por eso estima que en el acceso al empleo público sólo puede ser mérito y ser valorado en su justa medida según las condiciones de la plaza nunca requisito. Finaliza indicando que el euskera es patrimonio de todos y es patrimonio de España.

Oier Iturralde interviene para indicar que EH Bildu está de acuerdo con la declaración. Agradece parte de la declaración de Santiago Sainz, en cuanto resalta el valor cultural del esukera con lo que está de acuerdo, aunque no está de acuerdo en que sea patrimonio de España, ya que España

askoz lehenagokoa baita euskara, eta ez dator bat euskara gatazkarako tresna dela esatearekin.

es una realidad muy posterior al euskera y tampoco comparte que el euskera sea una herramienta de confrontación.

Santiago Sainzek dio berak esan duela ez dela erabili behar gatazkarako tresna gisa.

Santiago Sainz indica que él ha señalado que no debe utilizarse como herramienta para confrontar.

Alkatetzak proposamena eginda, Bozeramaileen Batzordearen akordioaren jakitun egon, ondorengo udal erakundearen adierazpenari doakionez:

A propuesta de la Alcaldía quedaron enterados de la siguiente declaración institucional adoptada por la Junta de Portavoces:

Egunero delako euskararen aldia

Bizi. Prest.

El euskera nos necesita en actitud activa y predispuesta
Porque todos los días son euskaraldia
Vivaz. Presto.

Halaxe datorkigu euskara bere aurtengo Nazioarteko Egunean. Eta halaxe doa etorkizunerantz. Mingainetan, pantailetan, uhinetan bizi-bizi. Zernahitarako prest.

Así es como se nos presenta el euskera en su Día Internacional de este año. Y así es como se proyecta hacia el futuro. Vivaz en nuestros labios, en las pantallas, en las ondas. Presto para ocupar su espacio.

Etxean bizi-bizi, kalean bezala; bizi-bizi eskolako jolastokian, ikasgelan bezala; lantokian bizi-bizi, lagunarteko solasaldietan bezala; bizi-bizi osagilearenean, saltokian bezala; zuzeneko harremanetan bizi-bizi, birtualetan bezala; bizi-bizi kirolean, liburuetan edo zineman bezala.

Vivaz y vigoroso, tanto en casa como en la calle, tanto en el patio de la escuela como en las aulas, tanto en el centro de trabajo como en la charla amistosa, tanto en la consulta del ambulatorio como en la tienda, tanto en las relaciones cara a cara como en las virtuales, tanto en el deporte como en los libros o en el cine.

Prest gaudelako gu, euskal herritar gehien-gehienok, hori horrela izan dadin. Prest gaudelako euskarari gure hitzen hegoak eskaintzeko, ahotik belarrira, bihotzetik bihotzera, burutik burura hegalda dadin, samur bezain indartsu. Dakiguna dakigula, mintzatzen ez dena baita euskara eskas bakarra.

Porque la inmensa mayoría de los ciudadanos y ciudadanas vascos estamos dispuestos a que así sea. Porque estamos dispuestas y dispuestos a dar al euskera las alas de nuestra voz, para que vuele, afable y pujante, de boca en boca, de corazón a corazón, de mente a mente. Sea cual sea nuestro dominio del euskera, porque el único mal euskera es aquel que no se

habla.

Prest gaude, eta gogotsu, euskarak gure ahoan bizi-bizi dantza egin dezan. Gogotsu gaude, eta prest, gure belarrietan atseginez onartzeko euskararen soinua. Dakiguna dakigula, entzuten ez dena baita euskara kaskar bakarra.

Estamos dispuestos y dispuestas a que el euskera asome con vivacidad a nuestros labios, y así nos proponemos que sea. Queremos que el sonido del euskera acaricie nuestros oídos. Sea cual sea nuestro dominio del euskera, porque el único euskera torpe es aquel que no se oye.

Prest gaudelako, eta ezin gogotsuago, euskaraz ere gero eta gehiago bizitzeko. Ingurune guztietan. Eginkizun orotan. Natural-natural. Bizi-bizi.

Porque estamos dispuestos y dispuestas, y lo deseamos profundamente, a vivir cada vez más en euskera. En todos los entornos. En todos los quehaceres. Con la mayor naturalidad. Con plena vitalidad.

Euskal hiztunok horretarako egin behar dugun urratsa ez da txikia, ez erraza. Borondate aktiboa eskatzen digu. Erosokeriari izkin egitea eskatzen digu. Sakon errotutako ohiturak aldatzea eskatzen digu. Kontzientzia ahalegin sendoa eskatzen digu. Euskaraz ere herritar izateko aukera egitea eskatzen digu.

El paso que para ello hemos de dar las personas vascohablantes no es pequeño, ni tampoco fácil. Nos exige la voluntad de activarnos. Nos exige zafarnos de la pereza. Nos exige cambiar hábitos hondamente arraigados. Nos exige un enérgico ejercicio de conciencia. Nos exige que optemos por ejercer nuestra ciudadanía también en euskera.

Eta eskatzen digu, batez ere, euskaldun izatetik euskaldun bizitzera doan tartea gainditzeko jokaera aktiboa. Eta etengabea.

Y nos exige, sobre todo, una actitud activa que ha de movernos a pasar de un mero “ser” vascohablantes a vivir como tales. Y a ser tenaces en el empeño.

Euskararen erabileran egin beharreko urrats erabakigarri hau zinez da gizarte-eraldaketa zabal sakona, neurri historikoa duena, gure gizartearen bilakabidean mugarri izango dena. Eta, neurri horretako aldaketa guztien antzera, adostasuna du elikagai nagusi, prestasun eta prestutasunarekin batera.

Ese decisivo paso respecto al uso del euskera supone una amplia y profunda transformación social de dimensiones históricas, un verdadero hito en la evolución de nuestra sociedad. Y, a semejanza de cualquier otra transformación de tal alcance, se sustenta fundamentalmente sobre el consenso, así como sobre una disposición diligente.

Euskararen gizartea. Gizartearen

La sociedad del euskera. El euskera de

euskara

Adostasuna eta batasuna dira, beraz, bidea, euskarak batura behar duelako, ez kenketa; biderketa behar du, ez zatiketa.

Herri aginteak, gizarteak bere dinamika propiotik sorturiko erakundeak, herritar guztiok eta gutariko bakoitza: den-denok gara, aldi berean, euskararen erabilera eraginkortasunez areagotzeak ezinbestekoa duen adostasun zibil zabalaren osagai eta eragile, aldi berean garen bezala haren onuradun eta bultzatzaile, bideratzaile eta babesle.

Baina aktibotasuna, praktikotasuna, da adostasun horren osagarri nahitaezkoa. Aski ez delako, honezkero, aldarrikapen hutsen linboan galtzen diren asmo arranditsuak plazaratzea. Atzean utzi behar dugulako beste inork euskararen alde egin lezakeenaren zain egotea. Lorgarria delako, erabat, euskararen erabilera hazkunde iraunkorraren bidean jartzea, baldin eta herritar bakoitzak euskara ezpainetara eramateko bere erabaki pertsonala gauzatzen badu, hori eta ez besterik delako, azken finean, gizartearen helburu kolektiboa: aukera pertsonal ugariren batura.

Eta egin egingo dugu.

Munduari euskaraz ere helduz, euskararentzat belarria zein gogoa prest izanez, euskara ahoz zein idatziz bizi-bizi eskainiz. Euskarak eguneroko

la sociedad

El camino, en consecuencia, es el del consenso y la unidad, porque el euskera necesita sumar, no restar; precisa multiplicación, no división.

Los poderes públicos, las organizaciones surgidas en el seno de la sociedad a través de sus propias dinámicas, todos y cada uno de los ciudadanos y ciudadanas: absolutamente todas y todos somos, a un tiempo, sujetos y agentes del amplio consenso que, ineludiblemente, requiere un eficaz crecimiento del uso del euskera, del mismo modo que somos simultáneamente beneficiarios e impulsores, auspiciadores y tutores de tal consenso.

Pero el rasgo sustancial de ese consenso es su carácter activo, unido a su pragmatismo. Porque ya no basta con grandilocuentes declaraciones de intenciones destinadas a desvanecerse en un limbo de vacuas proclamas. Porque debemos dejar de permanecer a la espera de lo que otros puedan hacer en pro del euskera. Porque el crecimiento sostenible del uso del euskera es perfectamente factible, siempre y cuando todos y cada uno de los ciudadanos y ciudadanas sustanciemos en la práctica la decisión personal de llevar el euskera a nuestros labios, puesto que en ello, y no en otra cosa, consiste, en definitiva, el objetivo colectivo de la sociedad: la suma de muchas opciones personales.

Y lo haremos.

Asomándonos al mundo también en euskera, manteniendo nuestros oídos y espíritu prestos para el euskera, haciendo volar en euskera nuestras

bizitza aberastu dezan; eguneroko bizitzak euskara bete dezan.

palabras y textos. Para que el euskera enriquezca nuestra vida cotidiana; para que nuestra vida cotidiana colme al euskera.

Elkarrekin.
Elkarrenganako errespetu osoz, elkarrengandik adorea jasoz.
Elkarri euskara eskainiz.
Euskara bizi-indarrez sendoagotuz.
Bizi. Prest.
Egunero delako euskararen aldia.

Codo con codo.
Con mutuo respeto y determinación compartida.
Ofreciéndonos el euskera recíprocamente y a manos llenas.
Para que el euskera se impregne de vitalidad.
En actitud activa y predispuesta.
Porque todos los días son euskaraldia.

**OGASUNA, KONTUAK, EKONOMIA-SUSTAPENA, GIZA BALIABIDEAK, HEZKUNTZA, GAZTERIA ETA EUSKARA**

**HACIENDA, CUENTAS, PROMOCIÓN ECONÓMICA, RECURSOS HUMANOS, EDUCACIÓN, JUVENTUD Y EUSKERA**

**161.- UDALAREN ETA ERAKUNDE AUTONOMOEN 2018KO 3. HIRUHILEKOKO AURREKONTUAREN BURUTZAPENAREN BERRI EMATEA.**

**161.- DACIÓN DE CUENTA DE EJECUCIÓN PRESUPUESTARIA DEL AYUNTAMIENTO Y DE LOS ORGANISMOS AUTONOMOS, 3ª TRIMESTRE 2018.**

Proposamena irakurri ondoren, Inazio Uriartek hartu du hitza. Berak azaldu duenez, normaltasunez eta proportzioz garatu da diru-sarrerak biltzen dituen txostenaren edukia, eta batez ere obra lizentziarako tasan izandako igoera nabarmendu du, agerian uzten duelako egoera ekonomiko hobea dugula. Gastuei dagokienez, adierazi du hasierako aurrekontuak 87 milioi zituela, baina gastu handiagoa izaten ari da, inbertsioetarako kredituen gerakinak sartu izanagatik. Proportzioz egiten ari dira gastuak, eta nabarmendu du ere zorra txikitu egin dela eta Udalkutxaren ondoriozko diru-sarreren igoera gertatu dela aurrekontua betearaztean.

Tras darse lectura a la propuesta interviene Inazio Uriarte que explica el contenido del informe que recoge que los ingresos se desarrollan con normalidad y proporcionalmente, destacando el incremento que se experimenta sobre todo en la tasa de licencia de obras, lo que evidencia una mejora de la situación económica. Respecto a los gastos, indica que el presupuesto inicialmente contaba con 87 millones pero el gasto está siendo superior por la incoporación de remanentes de créditos para inversiones. Los gastos se están ejecutando con proporción y destaca también que se produce en la ejecución del presupuesto una reducción de la deuda y el incremento de ingresos

derivados de Udalkutxa.

Eduardo Andradek adierazi du hauxe dela PPren ikuspegia: hirugarren hiruhilekoan, aurrekontuan jasotakoaren %75 gastatu beharrean, erdia bakarrik gastatu dela, eta hala gertatu zen 2017ko aurrekontuan ere, azkenean gastatu gabeko 45 milioi gelditu baitziren sobera. Egungo 120 milioiko aurrekontutik, 60 milioi baino ez dira gastatu guztira eta, beraz, urtearen amaieran 47 milioi euroko gerakina izango da. Aldi berean, zergak eta tasak igo dira; izan ere, Getxokoak dira inguruko tasarik altuenak. Halaxe gertatu da gobernu taldearen kudeaketa ezagatik, zeren eta gastatzen duenaren %88 pertsiana irekitzeko erabiltzen baitu eta %12 bakarrik inbertsioetarako. Hori igartzen da Getxon izaten ari den gainbeheran. Hauek aipatu ditu: gizarte laguntzako zerbitzuak ixtea, adinekoen protestak, etab. Gizarte Zerbitzuen sailaren kudeaketa txarra kritikatzen du, non aurrekontuan jasotako 12 milioietatik 7 milioi gastatu diren. Kaleak ilun eta txarto konponduta daudela kritikatu du, ez delako dirua Hirigintza Sailean gastatzen: aurrekontuan 37 milioi jasota izan arren, 18 milioi baino ez ditu gastatu. Bere ustez, laster udal hauteskundeak izango direla-eta, gobernu taldeak marketinera jotzen du eta azken urteetan egin duena iragartzen du, baina ez du ezer esaten egin gabeko inbertsioak eta zerbitzuak martxan jartzeaz. Horretarako, agindu diren eta bete ez diren inbertsioei buruzko datuak eman ditu. Gobernu taldeak datozen hileetarako diru publikoarekin kea saltzen duela uste du, hauteskundeak datozela eta.

Eduardo Andrade manifiesta que la visión del PP es que en el tercer trimestre en vez de gastarse el 75% de lo presupuestado se ha gastado solamente la mitad, cuestión que también ocurrió en el presupuesto de 2017, en el que sobraron al final 45 millones sin gastar. Del presupuesto actual de 120 millones de euros, solo se han gastado 60 millones, con lo que al final del año se reproducirá un remantente de 47 millones de euros, todo eso a la vez que se han subido impuestos y tasas, siendo las de Getxo las más altas de todo el entorno. La razón de esta situación es la falta de gestión del equipo de gobierno que dedica el 88% de lo que gasta a abrir la persiana y únicamente el 12% a inversiones y eso se nota en la decadencia que está sufriendo el municipio de Getxo. Cita cierres de servicios en la asistencia social, colas en las ventanillas, protestas de los mayores, etc., criticando la mala gestión del área de Servicios Sociales donde se está gastando 7 millones sobre los 12 presupuestados. Critica que las calles están oscuras y mal arregladas porque no se gasta el dinero en el área de Urbanismo, que disponiendo de 37 millones presupuestados solo ha gastado 18 millones. Cree que con la cercacnía de las elecciones municipales el equipo de gobierno tira de marketing y va anunciando lo que no han realizado en los últimos años pero nada dicen de poner en marcha servicios e inversiones no realizadas, dando datos de inversiones prometidas y no ejecutadas. Cree que el equipo de gobierno vende humo con dinero público en los próximos meses ante la celebración de las elecciones.

Santiago Sainzek adierazi du gobernu taldeak kudeaketaren aldetik dituen akatsei eusten zaiela. 2016tik (azken aurrekontua onartu zenean), aurrekontuak luzatuta ditugu, eta 2019rako aurrekontu proposamena ez aurkeztea kritikatu du. Ondorioz, herritarrek ezin dute jakin zer egin nahi duen gobernu taldeak bildutako diruarekin; gainera, ez da betetzen aurrekontuak aurkeztea eskatzen duen foru araudia. 2016ko OHZn, 2016an zerbaitez hitz egiten zuen baino gehiago 14 milioi euro, eta 2018ko luzapenean 775.000 eurotik gorako gehikuntza izan da. Ekitaldi honetan, 150.000 euro gehiago biltzea aurreikusten da eta, beraz, agerikoa da katastrazoaren efektua. Plusbalioa dela-eta, desdoikuntza gertatu da zerga-bilketan aurreikusitakoaren aldean, hasieran finkaturiko aurreikuspena beheratu bazen ere. Bere ustez, Auzitegi Konstituzionalak gaiari buruz emandako epaiagatik izan daiteke. Antzeko gauzak gertatzen dira zerga-tasetan, eta kudeaketa txarra dagoela deritzo. Dioenez, Bilbok zentro berritzaileak hartzen ditu bere kudeaketagatik, hala nola unibertsitateak. Getxon, berriz, ez da ezer egiten. Zabarkeriaren erakusgarri enpresen mintegia martxan jartzeko urteetako atzerapena aipatu du. Ogasuneko zinegotzia kritikatu du kudeaketagatik eta 2019rako aurrekontu proiektua ez aurkezteagatik.

Santiago Sainz manifiesta que se mantienen los vicios de gestión del equipo de gobierno. Desde el 2016, que fue el último prespuestos aprobado, se está en prórroga presupuestaria y critica que no se haya presentado una propuesta de presupuesto para el año 2019 con lo que la ciudadanía no puede saber qué es lo que quiere hacer el equipo de gobierno con el dinero que recauda, además de incumplir la normativa foral que exige la presentación de presupuestos. Respecto al IBI del año 2016 se hablaba de algo más de 14 millones de euros y en la prórroga del 2018 han incrementado en más de 775.000 euros. Este ejercicio se prevé recaudar 150.000 euros más, con lo cual el efecto del catastrazo es evidente. Respecto al impuesto de Plusvalía indica que se produce un desajuste de recaudación sobre lo previsto, pese a que se rebajó la previsión inicialmente fijada y estima que puede deberse al fallo del Tribunal Constitucional sobre esta cuestión. Manifiesta que ocurren cosas similares en otro tipos impositivos y cree que hay una mala gestión. Indica que mientras Bilbao, por su gestión, acoge centros innovadores, como universidades, en Getxo no se hace nada, poniendo como ejemplo de dejadez el retraso de años en la puesta en marcha del vivero de empresas. Critica al concejal de Hacienda por su gestión y por no presentar el proyecto de presupuestos para el 2019.

Inazio Uriartek adierazi du, Eduardo Andradek esan duenaren harira, ohiko kritika dela, baina datuen interpretazio okerrean oinarritzen dela. Ciudadanos-eko zinegotziari gogorarazi dio alderdi horrek Euskadin duen bakarra dela eta uste duela hauteskunde kanpaina egiteko erabiltzen duela presentzia

Inazio Uriarte, respecto a lo indicado por Eduardo Andrade, manifiesta que es una critica habitual pero que se basa en una interpretación incorrecta de los datos. Al concejal de Ciudadanos le recuerda que es el único de su formación en Eukadi y cree que utiliza su presencia para hacer campaña

hori. Aurrekontuen betearazpenari buruzko datuak errepikatu ditu: gastuetan %109 da baimenerako fasean, hain zuzen ere 27 milioiko inbertsio errealak gehitu direlako. Inork ezin du zalantzan jarri udalerrian azpiegiturak egiten direla. Diru-sarrerei dagokienez, %75,04 bildu da, hirugarren hiruhilekoari dagokiona. Azkenik esan du 2018an ez dela igo ez tasarik ez zergarik.

electoral. Retipe datos acerca de la ejecución presupuestaria que en gastos alcanza en fase de autorización el 109% y ello se debe a que se han sumado 27 millones en inversiones reales. Nadie puede poner en duda que se realizan infraestructruas en el municipio. Respecto a ingresos se ha recaudado el 75,04%, que se ajusta al periodo del tercer trimestre. Finaliza indicando que en el año 2018 no se ha incrementado ninguna tasa ni impuesto.

Eduardo Andradek ukatu du udala azpiegituretan jarduten ari denik, gastuak errealitatea islatzen baitu; izan ere, aintzatetsitako gastua begiratu behar da, ez baimendutako gastua, egitekoaren aurreikuspena baino ez delako. Azkenean esan du ez dela betetzen gobernu taldearen legegintzaldiko plana bera, eta legegintzaldiko planaren zenbait ez betetze zehaztu ditu.

Eduardo Andrade niega que el ayuntamiento está actuando en infraestructruas ya que el gasto refleja la realidad porque lo que hay que mirar es el gasto reconocido que significa lo que se ha hecho y no el autorizado que no es más que una previsión de realización. Finaliza indicando que no se cumple ni el propio plan de legislatura del equipo de gobierno detallando una serie de icumplimientos del plan de legisltura.

Ibon Rodríguezek esan du bitxia iruditu zaiola eztabaida, zeren eta ogasuneko zinegotziak datuak ematen baititu eta, bestalde, PPk esaten duenaren zati bat egia da, betetzen ari ez diren inbertsioak daudela eta. Egia da ere obrak egiten ari direla batez ere bigarren seihilekoan. Pertsonetan baino porlanean gehiago gastatzen dela kritikatzen du. Ados dago Ciudadanosekin esaten duenean ekonomia sustatzeko saila kudeatzailea baino ez dela eta ez duela planteatzen ekimenik. Horrez gain, osoko bilkurari ez zaio aurkeztu eztabaidatzeko 2017ko eta 2018ko aurrekontuen proiektua, eta badirudi 2019koa ere ez. Bere ustez, kudeatzeko ahalmena aurrekontuak garaiz aurkeztean islatzen da, eta aurrekontu proposamena aurkezteko gai ez bada, akordiorako eta

Ibon Rodríguez indica que le ha parecido extraña la discusión ya que el concejal de Hacienda da datos y por otro lado parte de lo que indica el PP es cierto en el sentido de que hay inversiones que no se están ejecutando. También es cierto que se están haciendo obras sobre todo en el segundo semestre. Critica que se gasta más en cemento que en personas. Está de acuerdo con Ciudadanos en que el área de promoción económica es solamente gestor y no plantea iniciativas y que al Pleno no se le ha presentado para su debate el proyecto de presupuestos los años 2017 y 2018 y tampoco parece que el de 2019. Cree que la capacidad de gestión se refleja en la presentación del presupuesto a tiempo y si no se es capaz de presentar una propuesta de presupuesto supone una falta de

kudeaketarako gaitasunik ez duela esan nahi du, eta aurrekontu hori soilik gobernu taldearen eskumena da.

capacidad para el acuerdo y para la gestión ya que la presentación de dicho proyecto es competencia exclusiva para el equipo de gobierno.

Santiago Sainzek azpimarratu du espedientean agertzen diren datuetan oinarritzen dela hark esandakoa; bertan dago jasota diru-sarreren aurrekontua ez betearazteari buruz adierazi duena.

Santiago Sainz reclaca que sus intervenciones se basan en los datos que figuran en el expediente, en donde reflejan lo que ha manifestado de la falta de ejecución del presupuesto de ingresos.

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

2018eko 3. hiruhilekoari dagokion Aurrekontu Orokorraren Exekuzio-egoerak jakintun egon, zeinari buruzko dokumentazioa aipaturiko espedientean jasota dagoen.

Quedaron enterados de los Estados de Ejecución del Presupuesto General, correspondientes al 3º trimestre del 2018, cuya documentación consta en el expediente de referencia.

**162.- BI DEKRETUREN BERRI EMATEA, TRANSFERENTZIEN BIDEZ AURREKONTUAK ALDATZEARI BURUZKOAK.**

**162.- DACIÓN DE CUENTA DE DOS DECRETOS DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE EL USO DE TRANSFERENCIAS.**

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Transferentziaren bidezko aurrekontu-aldaketaren Dekretu hauek jakintun egon:

Quedaron enterados de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante el uso de transferencias:

4238//2018 zenbakidun Dekretua 270.000,00 euroko zenbatekoarekin. 2018/14 kreditu-transferentzia. Energia elektriko-esleipen berriaren finantzaketa

Decreto nº 4238//2018 por un importe de 270.000,00 euros. Transferencia de crédito 2018/14. Financiación de la nueva adjudicación de energía eléctrica.

4504//2018 zenbakidun Dekretua 30.680,00 euroko zenbatekoarekin.

Decreto nº 4504//2018 por un importe de 30.680,00 euros. Transferencia de

2018/15 kreditu-transferentzia. Euskararekiko erlazionatutako hainbat jarduera.

crédito 2018/15. Acciones varias Euskera.

**163.-. 4416/2018 ZENBAKIDUN DEKRETUAREN BERRI EMATEA: KREDITUA PRESTATZEAREN BIDEZ EGINDAKO AURREKONTUAREN ALDAKETARI BURUZKOA.**

**163.- DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO Nº 4416/2018 DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE HABILITACIÓN DE CRÉDITO.**

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Kreditua prestatzearen bidez egindako aurrekontu-aldaketaren Dekretu hau jakitun egon:

Quedaron enterados del siguiente decreto de modificación presupuestaria mediante habilitación de crédito:

4416/2018 zenbakidun Dekretua 27.829,47 euroko zenbatekoarekin. 2018/07F kreditua gaitzea. 12.1 Atxekolandeta Egikaritze-Unitatearen urbanizazio kuotak.

Decreto nº 4416/2018 por un importe de 27.829,47 euros. Habilitación de crédito 2018/07F. Cuotas de urbanización de la Unidad de Ejecución 12.1 Atxekolandeta.

**164.- GETXOKO UDALERRIKO KANPOKO ARGITERIA PUBLIKOAREN INSTALAZIOAK MANTENTZEKO ZERBITZUAREN 2018/08/14 ETA 2018/11/13 ARTEKO FAKTURAK ONARTZEA.**

**164.- APROBACIÓN DE LAS FACTURAS CORRESPONDIENTES AL PERIODO DEL 14/08/2018 AL 13/11/2018 DEL SERVICIO DE MANTENIMIENTO DE LAS INSTALACIONES DE ALUMBRADO PÚBLICO EXTERIOR DEL MUNICIPIO DE GETXO.**

Proposamena irakurri ondoren, Eduardo Andradek hartu du hitza, hau adierazteko: proposamenak agerian uzten du gobernu taldearen kudeaketa txarra, lege babesik ez duen faktura aurkeztu baita ordaintzeko. Ez dago kontraturik, gobernu taldearen utzikeriagatik, kontratu berria formalizatzeko epeak pasatzen utzi baitu. Kontratua amaitu baino bi hilabete lehenago hasi zen prestatzen

Tras darse lectura a la propuesta interviene Eduardo Andrade para manifestar que la propuesta evidencia la mala gestión del equipo de gobierno ya que se plantea pagar una factura que no tiene soporte legal ya que no existe contrato y eso es por la desidia del equipo de gobierno que ha dejado pasarlos plazos para formalizar el nuevo contrato. El equipo de gobierno empezó a preparar los pliegos dos

gobernu taldea pleguak, eta udan, eta beraz, ez da lortu adjudikatzea amaitu baino lehen. Horrez gain, gobernu taldeak ohartarazten du egoera horretan jarraituko dela kontratu berria izan arte; hortaz, faktura gehiago aurkeztuko zaizkio osoko bilkurari, kudeaketa txarra agerian utzita. Horrek kostua dakar herritarrentzat, eta horregatik guztiagatik kontrako botoa emango dute.

meses antes de finalizar el contrato y en la época de verano con lo que no han llegado a adjudicar antes de la finalización y además el equipo de gobierno avisa que se va a seguir en esta misma situación hasta un nuevo contrato, con lo que se van a presentar nuevas facturas al pleno evidenciando una mala gestión que supone un coste económico para los vecinos y por todo ello votarán en contra.

Enrique Olasok dio GUK abstenituko dela, eginiko lanengatik kobratuko duelako enpresak eta hala gertatu delako tokiko gobernu taldearen utzikeriagatik, ez baititu hasi lehenago kontraturako izapideak. Agerikoa da kontratazio espedientea bi hilabete lehenago hasteak esan nahi duela ez direla egingo kontratazio izapide guztiak kontratuaren indarraldia betetzeko epearen barruan, are gehiago kontuan hartzen bada udan izan dela. Gaur egun kontratugilearen profilean adjudikatzeko prozesuan dago ekainean hasitako kontratua. Adierazi duenez, ohikoa bihurtzen ari da jarduteko modu hori, eta kudeatzeko modua alda dezala eskatzen dio gobernu taldeari.

Enrique Olaso manifiesta que GUK se va a abstener porque la empresa va a cobrar por trabajos realizados y que esta situación se produce por la desidia del equipo de gobierno local por no iniciar antes los trámites del contrato. Es obvio que dar inicio al expediente de contratación dos meses antes significa que no se van a realizar todos los trámites de contratación dentro del plazo de ejecución de vigencia del contrato y más aún teniendo en cuenta la época de verano. Informa que a día de hoy en el perfil del contratante sigue en proceso de adjudicación el contrato iniciado en junio. Manifiesta que esta forma de actuar se está convirtiendo en costumbre y pide al equipo de gobierno que cambie su forma de gestonar.

Joseba Arregik erantzun du plegu teknikoa 2018ko martxoan hasi zela egiten, kontratua amaitu baino sei hilabete lehenago, eta lehen bertsioa igorri zitzaion Kontratazioari apirilean, baina egia da eskaera formalaren orria ekainaren hasierakoa dela, eta harrezkero bizkor izapidetu da. Hala, irailaren 7an eskaintza ekonomikoa ireki eta txosten tekniko guztiak urriaren 30erako aurkeztu ziren, eta orduantxe ikusi zen balio anormalak zeudela hainbat eskaintzatan. Hori dela-eta, entzunaldirako izapidea eman behar izan da, azaroaren 26ra arte

Joseba Arregi replica que la elaboración del pliego técnico comenzó en marzo de 2018, es decir, seis meses antes de la finalización del contrato y se remitió una primera versión a Contratación en abril, pero es cierto que la hoja de solicitud formal es de primeros de junio y a partir de ahí se ha tramitado con celeridad, llegándose al 7 se septiembre a abrir la oferta económica y presentándose todos los informes técnicos para el 30 de octubre, momento en el que se detectan que hay valores anormales en diferentes ofertas lo que obliga a dar un trámite de

amaitzen ez dena. Berriz dio kontratuen legeak erabat garantista dela, eta horrek izugarri luzatzen ditu epeak. Osoko bilkurari hau planteatzen zaio onespena eman dezan: ez da legezko zerbait, tokiko administrazioan ohikoa den zerbait baizik, kontratazioaren prozedura garantista baita. Aldi berean, lege berriak denbora laburragoan lizitazio gehiago sortzeko borondatea du eta, beraz, administrazio izapide gehiago behar dira. Ez du nahi gertatu dena justifikatu, baina ohiko zerbait dela esan nahi du eta hobetzen saiatuko dela.

Ibon Rodriguezek adierazi du egia dela egoera zaildu dela eta gobernu taldeak ez duela kontuan izan araudia eta berandu hasi dela kontratu berriaren kudeaketa. Errepikaturiko kontratua bada, suposatzen da gaiaren berri izango dela eta lehenago eta errazago has daitezkeela pleguak egiten, eta hau bezalako egoerak saihesteko, denboraren gaineko beharrezko neurriak hartu behar dira. Ez dute onartzen normaltzat hartu nahi izatea kontratuak epearen barruan adjudikatzea ez lortzea.

Eduardo Andradek adierazi du bat datorrela EH Bilduk esan duenarekin eta legea ez dela aitzakia. Araudira egokitzea da bidezkoa. Baina ezin onar daiteke kontratuen adjudikaziora berandu iristea, kudeaketa txarra bakarrik uzten duelako agerian. Berandu adjudikaturiko kontratuak gogoratu ditu, eta uste du epea betetzea izan behar dela ohikoa.

Enrique Olasok dio ados daudela Hirigintzako zinegotziak emandako datuekin; daturen bat ez zekiten, ez delako ageri kontratugilearen profilean. Kontratuen Legearen bermeak zein

audiencia que no finaliza hasta el 26 de noviembre. Insiste en que la normativa de contratos es absolutamente garantista, lo que alarga terriblemente los plazos. Lo que se plantea al Pleno para su aprobación no es algo legal sino algo habitual en la administración local debido al procedimiento garantista de la contratación, que a su vez esta nueva ley tiene la voluntad de generar más licitaciones en menos tiempo con lo que requiere mayores trámites administrativos. No busca justificar lo acontecido pero sí indicar que es algo normal y que se procurará mejorar.

Ibon Rodríguez manifiesta que es cierto que la situación se ha complicado y el equipo de gobierno no ha tenido en cuenta la normativa y ha empezado tarde la gestión del nuevo contrato. Si el contrato es repetido se supone que se conocerá el tema y se puede empezar antes y más fácilmente se realizarán los pliegos y a fin de evitar situaciones como la presente es preciso tomar las medidas temporales necesarias. No admiten que se busque normalizar no llegar a adjudicar los contratos en plazo.

Eduardo Andrade indica que comparte lo manifestado por EH Bildu y la ley no es una excusa, lo que procede es adecuarse a la normativa y no cabe normalizar llegar tarde a la adjudicación de los contratos ya que ello evidencia únicamente la mala gestión. Recuerda diferentes contratos que se han adjudicado tarde y plantea que lo normal sea cumplir los plazos.

Enrique Olaso indica que están de acuerdo con los datos que da el concejal de Urbanismo aunque alguno no lo conocían porque no figura en el perfil del contratante. Conoce las garantías de

diren badaki, eta Lege berriaren aurrean gobernu taldeak kudeatzeko neurri egokiak hartu behar ditu eta horrelako egoerak normalizatzeko asmorik ez izatea.

la Ley de Contratos y ante la nueva Ley el equipo de gobierno tiene que adoptar las medidas de gestión oportunas y no pretender normalizar este tipo de situaciones.

Joseba Arregik esan du normalizatzea ez dela ohikoa bihurtzea; gerta litekeela aitortzea da, eta denboraren barruan formalizatzen ez diren kontratuen kopurua oso txikia dela esan du.

Joseba Arregi manifiesta que normalizar no es hacerlo habitual pero es reconocer que puede suceder e indica que el número de contratos que no se formalizan a tiempo es marginal.

Proposamenaren bozketa eginda, hauxe izan da emaitza: 11 boto alde, PNV, PSE-EE; 4 boto kontra, PP; 9 abstentzio, GUK, EH Bildu, Ciudadanos.

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 11 votos a favor, PNV, PSE-EE; 4 votos en contra, PP; 9 abstenciones, GUK, EH Bildu, Ciudadanos.

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acuerda:

ELECTRICAS ASMOTUR URIARTE, S.L., C.I.F. B48833412 enpresak egindako ondorengo faktura zerrenda onartzea, jarraian azaltzen den xehetasunarekin, eta dagokion obligazioa aitortzea, ordainketa egiteko agindua emateko, 2018ko ekitaldiko udal aurrekontuaren kontura

Aprobar la siguiente relación de facturas emitidas por la empresa ELECTRICAS ASMOTUR URIARTE, S.L., con C.I.F.: B48833412, con el detalle que a continuación se especifica, reconociendo la correspondiente obligación con cargo al Presupuesto Municipal del ejercicio 2018, para su posterior ordenación de pago.

| **Faktura zk./ Nº factura** | **Fakturaren data / Fecha factura** | **Azalpena / Concepto** | **Zenbatekoa (BEZa barne)/ Importe (iva incluido)** |
|---|---|---|---|
| 18363 | 14/11/2018 | GETXOKO UDALERRIKO ARGITERIA PUBLIKOAREN INSTALAZIOAK MANTENTZEKO ZERBITZUA Aldia: 2018/08/14-2018/11/13 / SERVICIO DE MANTENIMIENTO DE LAS INSTALACIONES DE ALUMBRADO PÚBLICO DEL MUNICIPIO DE GETXO | 106.683,63 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | Periodo 14/8/2018 al 13/11/2018 | |
| | | | |

**HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK ETA INGURUMENA**

**165.- GETXOKO HIRI ANTOLAKETAKO PLAN OROKORRAREN ALDAKETA ZEHATZA BEHIN-BEHINEKO ONESTEA, 42 ZENBAKIDUN ORMAZA ARLORAKO, ETA EGINDAKO ALEGAZIOAK EBAZTEA.**

Proposamena irakurri ondoren, Joseba Arregik hartu du hitza, proposaturiko aldaketaren edukia zehazteko. Ingurua berrantolatzea eta dentsifikazio berriak ezartzea dakar berekin aldaketak, BOEko 116 etxebizitza eraikitzea eta hiri parke bat sortzea ahalbidetuta, besteak beste. Aldaketari esker, errazagoa izango da kudeaketa, eta lurzoru berrien garapenen eta egungo eraikuntzen arteko gatazkak saihestuko dira. 145 etxebizitza libre eraikitzeko aukera ere biltzen du, baita jarduera ekonomikoak har ditzakeen erabilera tertziarioko lursaila ere. Proposamenaren bidez, balioetsi egiten da EAJk eta PSE-EEk ezabizitzarri buruz hartutako akordioa, jarduketaren batean PPren babesa ere izan duena.

Eduardo Andradek adierazi du gobernu taldearekin lorturiko akordioari esker proposamena aurrera aterako dela. Bere ustez, proposamenak aberastasuna ekarriko dio Getxori, ahalbidetzen dituen jarduketengatik. PPk uste du ezen, HAPO berrikusi baino lehen, hiri lurzoruaren ahalmena garatu behar dela, eta gogorarazi du ildo horretan PPk emandako babesa. Egiteke dauden eremuetan jarduteko ere eskatu du, Maidaganen adibidez. PPren babesari esker, egungo HAPO

**URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE**

**165.- APROBACIÓN PROVISIONAL DE LA MODIFICACIÓN PUNTUAL DEL PGOU EN EL ÁMBITO DEL AREA Nº 42-ORMAZA, CON RESOLUCIÓN DE LAS ALEGACIONES PRESENTADAS.**

QUINTO.- Hacer constar expresamente que el artículo 70 de la Ley de Bases del Régimen Local establece que las Ordenanzas se publican en el Boletín Oficial de la Provincia y no entran en vigor hasta que se haya publicado completamente su texto aprobado definitivamente y haya transcurrido el plazo de quince días.

## MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK

## MOCIONES E INTERPELACIONES

### 167.- PP ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: UME-BONOA.

### 167.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/BONO BEBÉ.

Eduardo Andradek mozioa irakurri du.

Eduardo Andrade da lectura a la

Ibon Rodríguezek zuzenketa transakzional gehigarria planteatzen du. Irakurri egin du:

*"BIGARRENA: "Haurtxoentzako bonoaren" sorreran, arautzean eta bere banaketan kontuan hartuko dira balizko hartzaileen diru sarrerak eta errenta egoera."*

Eduardo Andradek onartu du zuzenketa transakzionala. Adierazi duenez, PPren legealdiko ideietako bat familiei laguntzea izan da eta, horretarako, errenta familiar estandarizatua sartu du, familia ugarientzako laguntzak, eta lehentasunetako beste bat merkataritza da. Jaiotzengatiko pizgarriak proposatzen dira eta, aldi berean, merkataritzarako. Getxon 600 haur jaiotzen dira urtean, eta familientzako eta merkataritzarako laguntzak erlazionatzen ditu proposamenak.

Ibon Rodríguezek esan du ez dutela argi PPren mozio bati babesa ematea politika berria edo zaharra den, baina ideia ona bada, babesa emango diote. Jaiotze-tasa handitu beharra dagoela uste dute. Badakite arlo horretako zenbait alderdi udalerriaren eskumenetik harago daudela, baina badira zenbait udal jarduketa herritarrei eman zaien zerbitzuetan, seme-alabak dituzten gurasoen egoera hobetu eta horretara egokituz. PPk bere proposamenean onartu du diru-sarreren arabera zuzentzea; gainera herrian gastatzea proposatzen da. PPri esan dio gobernutik gauza asko egin daitekeela merkataritzaren alde, batez ere PPk egin dituen eta banan-banan aipatuko dituen jarduketak saihestuz: saltoki handiak ahalbidetzeko, etab., baina mozio zehatzaren alde egingo

moción.

Ibon Rodríguez plantea una enmienda trasaccional de adición a la que da lectura:

*"SEGUNDO: En la creación, regulación y distribución del "bono bebé" se tendrán en cuenta los ingresos y la situación de la renta de los y las perceptoras."*

Eduardo Andrade admite la enmienda trasaccional. Manifiesta que una de las ideas del PP en la legislatura ha sido apoyar a las familias y para ello ha incorporado la renta familiar estandarizada, ayudas a familias numerosas y otra de las prioridades es también el comercio. En esta propuesta propone incentivar la natalidad y a su vez, con esa ayuda, incentivar también el comercio. En Getxo nacen 600 niños y niñas al año y la propuesta relaciona la ayuda a las familias con la ayuda al comercio.

Ibon Rodríguez indica que no tienen claro si apoyar una moción del PP es nueva o vieja política pero si la idea es buena la apoyan. Creen que es necesario incrementar la natalidad. Son conscientes de que en este aspecto hay cuestiones que exceden de las competencias del municipio pero sí hay actuaciones municipales que se pueden dar tanto en los servicios que se prestan a la ciudadanía mejorando y adecuando los mismos a las situaciones de padres con niños. El PP ha admitido en su propuesta la corrección en función de los ingresos y además se plantea que se gaste en el municipio. Indica al PP que desde el gobierno se puede hacer cosas en favor del comercio, sobre todo evitando actuaciones que ha tenido el PP que pasa a relacionar, relativas a posibilitar grandes superficies, etc.,

dute zuzenketarekin.

pero la moción en concreto con su enmienda la apoyarán.

Enrique Pradak adierazi du zalantzak pizten dizkiola proposamenak, baita establezimenduak mugatzeak ere, baina EH Bilduren zuzenketarekin mozioaren alde egingo du.

Enrique Prada manifiesta que la propuesta les genera dudas, así como la limitación de los establecimientos, pero con la enmienda de EH Bildu van a apoyar la moción.

Santiago Sainzek dio mozioa eta zuzenketa ikusita zuzen deritzola, sarrerak hartzen dituelako kontuan. Mozioaren alde egingo du. Horrelako proposamenak lagungarriak dira, baina ez dute jaiotze-tasa txikiaren arazoa konponduko. Gazteek etxebizitza eta lan egonkorra eskuratzeko zailtasunak dituztenez, ezin dira emantzipatu, eta horrek eragin zuzena du jaiotze-tasa txikian. PP egun batean antzeko ume-bonoaren proposamenaren aurka agertu zela gogorarazi du; PSOEk aurkeztu zuen proposamena estatuan.

Santiago Sainz indica que viendo la moción y la enmienda, que le parece correcta ya que se tienen en cuenta los ingresos van a apoyar la moción. Manifiesta que este tipo de propuestas ayuda pero que no va a resolver el problema de la natalidad. Los jóvenes tienen problemas para acceder a una vivienda y un empleo estable lo que impide su emancipación y ello incide directamente en la problemática de la baja natalidad. Recuerda que el PP se opuso en su día a una propuesta de bono bebé similar que planteó el PSOE en el Estado.

Inazio Uriartek eskerrak eman ditu zuzenketagatik, baina ez da nahikoa horren alde egiteko. Gobernu taldeak argi du familiei eta dendei lagundu behar zaiela. Eskola-gastuetarako familiei ematen zaien laguntzen eta Getxo-bonoaren berri eman du; eutsi egiten zaio jarduera horri. Bere ustez, talde guztiak dira familiari eta merkataritzari laguntzearen aldekoak. PPk neurri baten izena planteatu du, ondoren zehaztu egin dena EH Bilduren zuzenketaren bidez. Proposamenek serioagoak izan behar dutela irizten dio. Getxo bonok ondo funtzionatzen du eta, nolanahi ere, hura indartzea izango litzateke egokiena, baina badaki ez dela eraginkorra bonoak diru-sarreren arabera bereiztea. Eusko Jaurlaritzak onartutako Familiari Laguntzeko Euskal Planak 116 neurri dakartza eta

Inazio Uriarte agradece la moción y la enmienda pero no es suficiente para que apoyen la misma. El equipo de gobierno tiene claro que hay que ayudar a las familias y al comercio. Da cuenta de las ayudas a familias para gastos de escolarización y la existencia del Getxo-bono, actividad que sigue manteniéndose. Cree que todos los grupos están por apoyar a la familia y al comercio. El PP solo ha planteado el nombre de una medida que luego ha sido concretada, en parte, por la enmienda de EH Bildu. Cree que las propuestas han de ser más serias. Getxo bono funciona y en todo caso lo que procedería sería potenciarlo aunque es consciente que en un bono diferenciar por ingresos no es operativo. Indica que el Plan Vasco de ayuda a la familia aprobado por el Gobierno Vasco recoge 116 medidas y ninguna se refiere al

bat ere ez dagokio ume-bonoari, baina bai familientzako laguntzei. Nolanahi ere, bere ustez, gobernu taldeak bonoen inguruko apustu erreala Getxo bonoa handitzea eta familia errespetatzea izango litzateke. Eusko Jaurlaritzaren Familientzako Plana aipatu du, Getxon ezar daitezkeen neurriak biltzen dituena, baina ez bonoarena.

Teresa Escalantek adierazi du EH Bilduren zuzenketak mozioa hobetzen duela, baina ez du babestuko, proposamen partziala delako eta gutxi landuta dagoelako. Getxo udalerria gainditzen du arazoak, eta Eusko Jaurlaritzak foru aldundiekin eta EUDELekin sinaturiko familiei eta haurrei laguntzeko euskal ituna aipatzen du. Neurri zehatzak biltzen dituen plan instituzionalean gauzatzen da ituna. Bere ustez, eragin txikia duen ideia da ume-bonoarena.

Eduardo Andradek esan du gobernu taldetik gaia lantzen ari direla erantzutea espero zuela. Berriz dio zerbait zehatza planteatu behar dela Gexorako. Eskerrak eman ditu babesagatik, eta onestea espero du, baina badaki alkateak ez dituela betearazten osoko bilkuran gehiengoaz hartutako akordioak. Gobernu taldea ez da gai izango 600 eskabide baino gehiagoko bonoa kudeatzeko; hori ez zaio harrigarria iruditzen, gobernu taldeak kudeatzeko duen gaitasunik eza ikusita. Gobernu taldearen jarrera ikusita, uste du agerian gelditzen dela ez diela familiei laguntzen.

Inazio Uriartek dio udalak diru-laguntzen deialdien bidez kudeatzen duela Getxo bonoa. Beste bono bat planteatzen du PPk, ume-bonoa bezalakoa. Berriz dio diru-laguntzen euskal plana dagoela, ez bonoena.

bono bebé y sí se recogen ayudas a las familias. Cree que en todo caso la apuesta real del equipo de gobierno respecto a los bonos sería incrementar el Getxo bono y respecto a la familia, se remite al plan de familias del Gobierno Vasco que recoge medidas que se pueden implantar en Getxo pero no la del bono.

Teresa Escalante indica que la enmienda de EH Bildu mejora la moción pero que no van a apoyarla por ser una propuesta parcial y poco elaborada. La problemática desborda el municipio de Getxo y cita el pacto vasco de ayuda a la familia e infancia suscrito por el Gobierno Vasco con las Diputaciones Forales y EUDEL. El pacto se materializa en un plan institucional que recoge medidas concretas. Le parece que el bono bebé es una ocurrencia con escasa incidencia.

Eduardo Andrade manifiesta que esperaba una respuesta del equipo de gobierno del estilo de que ya estaban trabajando en el tema. Insiste en que se plantea algo concreto para Getxo. Agradece los apoyos y espera que se apruebe aunque es consciente que el Alcalde no ejecuta los acuerdos mayoritarios del Pleno. Cree que el equipo de gobierno no es capaz de gestionar un bono que no va a tener más de 600 solicitudes, lo cual no le extraña teniendo en cuenta su falta de capacidad de gestión. Cree que con la postura del equipo de gobierno se evidencia su no apoyo a las familias.

Inazio Uriarte indica que el Getxo bono se gestiona por el ayuntamiento a través de una convocatoria de subvenciones. El PP plantea otro bono, como el bono bebé. Insiste en que hay un plan vasco que habla de

Udalak aplikatzen dituen hobariez hitz egiten da, eta EH Bilduk bere zuzenketarekin sartu duen errenta familiar estandarizatuaren irizpidea jarraitzen da. Merkataritzan, berriz dio badagoela Getxo bonoa, ondo funtzionatzen duena; edozelan ere, indartzea izango litzateke eztabaida. Familientzako diru-laguntzak euskal planean daude bilduta, eta udalak ere ematen ditu, eskolako materialerako adibidez, baina berriz dio euskal planak ez dakarrela bonorik.

subvenciones y no de bonos. Se habla de bonificaciones que el ayuntamiento aplica y siguiendo el criterio de la renta familiar estandarizada que EH Bildu ha incorporado con su enmienda. Respecto al comercio insiste en que ya existe el Getxo bono, que funciona, y en todo caso el debate sería sobre su fortalecimiento. Las subvenciones a la familia se recogen en el plan vasco y en el ayuntamiento se dan como en los casos de material escolar pero insiste en que el plan vasco no recoge bonos.

Ibon Rodríguezek esan du gobernu taldeak, oposizioaren proposamenen aurrean, jarduketekin erantzuten duela, baina oraingoan bi jarduketa baino ez ditu eman. Eskolarako laguntzei dagokienez esan du aurretik jaiota egon behar direla umeak. Getxo bonoak emaitza ona du, baina mozioak zerbait berria planteatzen du, eta ez du uste kudeatzeko zaila denik. Bere ustez, ez da ideia babesten ez delako gobernu taldearena. Galdetu du zer eragozpen dakarren ume-bonoak Getxo bonoan.

Ibon Rodríguez indica que el equipo de gobierno ante las propuestas de la oposición responde con las actuaciones que realizan pero esta vez solo ha dado dos actuaciones. Respecto a las ayudas a la escolarización indica que para ello es previo nacer. Getxo bono funciona pero la moción plantea algo nuevo y no cree que sea difícil de gestionar. Cree que no se apoya porque la idea no es del equipo de gobierno. Se pregunta en qué interfiere el bono bebé respecto al Getxo bono.

Eduardo Andradek adierazi du Getxo bono lehenbizi Bizkaiko lurraldearen mailan ezarri zela PPk Batzar Nagusietan eginiko proposamenaren bidez. Bono mota desberdinak ematen direla gogorarazi du, kulturakoa, altzariak erosteko, etab., eta ez dago elkarren arteko eragozpenik. Gobernu taldeari esan dio ezen, ez bada gaia ume-bonoa kudeatzeko, esan dezala.

Eduardo Andrade manifiesta que el Getxo bono se instaló primero a nivel del territorio de Bizkzia a través de una propuesta del PP en Juntas Generales. Recuerda que se emiten bonos de diferente tipo, de cultura, de adquisición de mobiliario, etc., y no se interfieren entre ellos. Indica al equipo de gobierno que si no es capaz de gestionar el bono bebé que lo diga.

Inazio Uriartek esan du udalak merkataritzarako zenbait jarduketa egiten duela, guztira 200.000 eurotik gorakoak, eta hainbat arlo hartzen dituzte: prestakuntza, aholkularitza, elkarteen sustapena, etab. Bere ustez, beste bono batek ez du gehitzen, kentzen baino. Merkataritza

Inazio Uriarte manifiesta que hay actuaciones en el comercio que se realizan por parte del ayuntamiento que suponen más de 200.000 euros y que abarcan cuestiones de formación, asesoramiento, fomento del asociacionismo, etc. Cree que un bono más no ayuda sino resta. Indica que la

bultzatzeko kanpainetarako beste erakunde batzuekiko elkarlana, Bizkaiko Foru Aldundiarekin adibidez, bide garrantzitsua da. Proposamena ez dela zehatza kritikatzen du, eta PPk bere irudia nabarmendu nahi duela.

colaboración con otras instancias como la Diputación Foral de Bizkaia para campañas en apoyo del comercio es una vía importante. Critica que la propuesta no es concreta y el PP busca resaltar su imagen.

Ibon Rodríguezek dio gobernu taldeak, bere laguntzetan, beste erakunde batzuek ematen dizkioten diru-laguntzak kudeatzen dituela. Dendarien elkartearekiko harremanetan, ez dituzte onartzen aurkezten dizkioten proposamen guztiak, eta egia esan, gero eta lonja gehiago daude itxita. Proposamenaren helburua ez da bakarrik haurtxoen produktuetan gastatzea, oro har dendetan baino. Agerikoa denez, ez dute proposamena babesten ez delako eurena. Bizkaiko Foru Aldundiari dagokionez, adierazi du ezen, dendari txikiei laguntzeko egiten ari den bezalako kanpainak baino, hobe izango zela saltoki handiak jartzea galaraztea.

Ibon Rodríguez dice que el equipo de gobierno en sus ayudas gestiona las subvenciones que les dan otras instituciones. En las relaciones con la asociación de comerciantes no admiten todas las propuestas que le presentan y la realidad es que cada vez hay más lonjas cerradas. La propuesta no busca gastar solo en artículos de bebés sino en el comercio en general. Lo evidente es que no apoyan la propuesta porque no es su idea. Respecto a la Diputación Foral de Bizkaia, manifiesta que mejor que hacer campañas como la que está realizando de apoyo a los pequeños comercios hubiera sido que no permitiera la instalación de grandes superficies comerciales.

Proposamena bozkatuta, hauxe izan da emaitza: 13 boto alde, PP, GUK, EH Bildu, Ciudadanos; 11 kontra, PNV, PSE-EE.

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 13 votos a favor, PP, GUK, EH Bildu, Ciudadanos; 11 votos en contra, PNV, PSE-EE.

Gehiengoak onartutako mozioak:

Por mayoría fue aprobada la siguiente moción:

Popular Udal Taldeko kideok argi eta garbi egiten dugu familia eta merkataritza babestearen aldeko apustua. EUSTAT erakundearen datuen arabera, 2009. urtetik Getxoko biztanleak % 3,1 murriztu dira, hau da, zahartze-indizea igo da eta jaiotza-tasa, berriz, jaitsi.

Desde el Grupo Municipal Popular tenemos claro nuestro apoyo a la familia y nuestro apoyo al comercio. Desde el año 2009 y según datos del EUSTAT, la población de Getxo ha descendido en un 3,1%, lo que se traduce en un aumento del índice de envejecimiento y una disminución de la natalidad.

Hori dela eta, udalerrian erroldatutako familiei lagunduko dien ekimen hau aurkezten dugu, seme-alaba bat edo

Por eso presentamos esta iniciativa que favorece a las familias empadronadas en el municipio para que, por

gehiago jaiotzean edo adoptatzean "haurtxoentzako bonua" izeneko diru-laguntza ematea nahi dugu, sortzen diren gastuen zati bat ordaintze aldera.
Adingabearentzako ondasunak ordaintzeko erabiliko da soilik bonu hori, eta programan parte hartzen duten udalerriko establezimenduetan erosi beharko dira. Gauzak horrela, alde biei lagunduko diegu: batetik, diru-laguntza bat emango diegu familiei; bestetik, udalerriko saltokietan erostea bultzatuko dugu, bertan baliatu beharko baita laguntza hori.

Horretarako, ekimenaren berri eman behar zaie tokiko merkataritza-establezimenduei, hizpide dugun kanpainarekin bat egin dezaten.

Horregatik guztiagatik, Popular Udal Taldeak ondorengo ERABAKI PROPOSAMENA aurkezten du:

LEHENENGOA: "Haurtxoentzako bonua" sortzea, udalerriko saltokietan soilik erabili ahal izango dena.

BIGARRENA: "Haurtxoentzako bonoaren" sorreran, arautzean eta bere banaketan kontuan hartuko dira balizko hartzaileen diru sarrerak eta errenta egoera.

HIRUGARRENA: Mozio honen berri eman dadila udalaren komunikabideetan.

nacimiento o adopción de uno o más hijos, se les conceda una ayuda económica en forma "bono bebé" para paliar los gastos que se originan.
Este bono sólo se utilizará para la adquisición de bienes de uso exclusivo del menor, en los establecimientos del municipio adheridos al programa. De esa manera beneficiamos a ambas partes, por una parte dotamos de una ayuda económica a las familias y por otra incentivamos la compra en el comercio local del municipio donde se gastaría dicha ayuda.

Para ello es necesario dar a conocer la iniciativa entre el comercio local de manera que puedan adherirse a la campaña.

Por todo ello el Grupo Municipal Popular presenta la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

PRIMERO: Creación de un "Bono Bebé" de uso exclusivo en comercios del municipio.

SEGUNDO: En la creación, regulación y distribución del "bono bebé" se tendrán en cuenta los ingresos y la situación de la renta de los y las perceptoras.

TERCERO: Que se informe de esta moción en los medios de comunicación municipales.

**168.- PP ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: SALTEGI-MINTEGIA ALGORTAN.**

Eduardo Andradek ondorengo mozioa irakurri du:

**168.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/VIVIERO DE COMERCIOS EN ALGORTA.**

Eduardo Andrade da lectura a la siguiente moción:

Saltoki ugari ixten ari dituzte Getxon eta, ondorioz, saltokirik eta jenderik gabeko auzo mortu bilakatzen ari dira gure kaleak; izan ere, hala dio esaerak: "saltokirik egon ezean, ez da bizitzarik egongo".

El cierre de comercios en Getxo se está convirtiendo en una constante que convierte nuestras calles en verdaderos desiertos comerciales, y con ello desiertos vecinales porque como se dice siempre "donde no hay comercio no hay vida"

Horren erakusgarri da Algortako Amesti kalea, gaur egun 14 saltoki itxi baitaude bertan.

Un ejemplo de este desierto comercial lo tenemos en la calle Amesti de Algorta donde, a día de hoy, existen 14 comercios cerrados.

Kale horretako ate eta erakusleiho guztiek islatzen dute udalak orain arte egindako jarduketak ez direla nahikoak.

Puerta con puerta, escaparate con escaparate la imagen de esta calle es el claro reflejo de que las actuaciones llevadas a cabo ahora por el Ayuntamiento no son suficientes.

Udalak merkataritzaren alde egiteko unea da; lanean hasi behar da hura sortu, mantendu eta garatzearren.

Ha llegado el momento de que el Ayuntamiento apueste decididamente por el comercio y comience a trabajar para su creación, mantenimiento y desarrollo.

Gure ustez, merkataritza sustatzeko modu bat kale horretan saltokien haztegi bat sortzea da; proba pilotu gisa izango litzateke, etorkizunean beste kale batzuetan ere ezarri ahalko litzatekeena.

A nuestro entender una fórmula para potenciar el comercio sería la creación de un vivero de comercios en esta calle como prueba piloto, exportable a otras calles en el futuro.

Udalak honako baldintza hauek bete beharko ditu haztegi hori sortzeko:

1. 14 lokal komertzialak alokatuko ditu aldi berean.
2. Udalerrian jardun nahi duten 14 ekintzaile hautatuko ditu GetxoLanen bitartez.
3. Lokal horietan merkataritza-jarduerak ezartzen lagunduko eta irakatsiko du.
4. Lokal horiek ekintzaileei azpierrentamenduan eman ahal izateko baremo batzuk ezarriko ditu, askotariko prezio eta iraupenekin,

La creación de este vivero debería seguir las siguientes acciones por parte del Ayuntamiento:

1. Alquilará a la vez, los 14 locales comerciales.
2. Seleccionará a través de GetxoLan a 14 emprendedores que deseen implantarse en el municipio
3. Acompañará y tutorizará la implantación de las actividades comerciales en los citados locales.
4. Establecerá unos baremos para el subarriendo de estos locales a los emprendedores con precios y duraciones variadas de acuerdo a las

komertzio bakoitzaren proposamenen arabera.
5. Ekintzaile horientzako laguntzen eta diru-laguntzen lerroa ezarriko du.

Helburua kaleak merkataritza-jarduera berreskuratzea da, horren ondorioz bertako bizitza ere berreskuratzeko.

Horregatik guztiagatik, Popular Udal Taldeak ondorengo ERABAKI PROPOSAMENA aurkezten du:

LEHENENGOA: Getxoko Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio Algortako Amesti kalean saltokien haztegi bat jar dezan martxan ahalik arinen, mozio honetan jasotakoarekin bat etorriz.

BIGARRENA: Mozio hau udaleko hedabideetan jakinaraztea.

Maite Arraizak dio bat datorrela mozioan salatzen denarekin eta ondo irizten diola proposamenari, baina ahaztu egin ditu beren jarduerari eusteko lanean diharduten dendariak. Jarduketak behar dira denda guztientzat, EH Bilduk tokiko moneta sortzeko egin zuen proposamena esaterako. Berriz ere aldarrikatu nahi du proposamena. Uste dute dendarik gabe herria hilik gelditzen dela.

Enrique Pradak adierazi du asmo onez eginiko mozioa dela, baina badira lonja hutsik dituzten eremu gehiago, eta Merkataritza Mahaitik egin behar da lan, horretarako foro egokia baita. Horregatik abstenituko dira.

Teresa Escalantek dio PPk proiektu pilotua deitzen duena okerreko proba

propuestas de cada comercio.
5. Establecerá una línea de ayudas y subvenciones para estos emprendedores.

El objetivo es que la calle recupere la actividad comercial, y con ello se recupere la vida en la misma.

Por todo ello el Grupo Municipal Popular presenta la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

PRIMERO: El Pleno del Ayuntamiento de Getxo insta al equipo de gobierno para que a la mayor brevedad posible inicie la puesta en marcha de un vivero de comercios en la calle Amesti de Algorta de acuerdo a lo establecido en el cuerpo de esta moción.

SEGUNDO: Que se informe de esta moción en los medios de comunicación municipales.

Maite Arraiza indica que la problemática que denuncia la moción es compartida y la propuesta que se presenta les parece bien, pero se olvida a los comerciantes existentes que luchan por continuar en su actividad. Hace falta actuaciones para todos los comercios como fue la propuesta de EH Bidu de crear la moneada local que vuelven a reinvidicar. Creen que sin comercio el pueblo queda muerto.

Enrique Prada indica que les parece una moción bien intencionada pero que hay más zonas con lonjas vacías y es necesario trabajar desde la Mesa de Comercio que sería el foro adecuado para ello y por eso se abstendrán.

Teresa Escalante manifiesta que lo que el PP llama proyecto piloto es un

sistema dela. Mozioan plangintza ekonomikoa defendatzen da, baina arbitrarioa da. Galdetu du zergatik kale batean bai eta bestean ez, zergatik berriei bai eta daudenei ez, eta zenbat denbora egongo den proposamena, zehaztu gabe dagoela irizten diotelako. Kontrako botoa emango dute.

sistema de prueba error. En la moción se defiende la planificación económica, pero es arbitraria. Pregunta por qué si en una calle y no en otra, por qué si a los nuevos y no a los que están y cuánto tiempo va a estar esta propuesta, por lo que les parece poco concreta y van a votar en contra.

Santiago Sainzek adierazi du udalerrian lokal asko itxita daudela, lehen dendak zeuden tokietan. Horiek ixteak zerbitzua emateari uztea ekarri du, eta uste du Ekonomia Sustatzeko Sailak zerbait egin behar duela. Adierazi du saltoki handiek eta Internet bidezko merkataritzak kaltea dakarkiotela tokiko merkataritzari. Gogorarazten du legealdiaren hasieran hutsik dauden lokalen zentsua egiteko eskatu zuela eta oraindik zain daude noiz amaituko. Errentamenduan emateko proposamena dela-eta, udalak lehenago eskuratu behar duela suposatzen du, eta horrek ondorioak dakartza. Bere ustez, kudeatzeko beste eredu batzuk daude, legealdiaren hasieran planteatu zena adibidez, Aingeruaren Etorbidean enpresa mintegia, baina ez da ezer egin gobernu taldearen utzikeriagatik. Tokiko merkataritza sustatzeko ekintzei dagokienez, Ciudadanosek aurkezturiko ekimenak gogorarazten ditu, gobernu taldeak aztertu ditzakeenak, hauexek gogora ekarrita: belaunaldien arteko erreleboa, bigarren aukera, etab.

Santiago Sainz manifiesta que en el municipio hay muchos locales cerrados, donde antes había un comercio, su cierre ha supuesto dejar de prestar un servicio y cree que el área de Promoción Económica algo debe de hacer. Indica que tanto las grandes superficies como el comercio por Internet incide negativamente en el comercio local. Recuerda que al principio de la legislatura pidió que se hiciera un censo de los locales vacíos y aún están esperando su finalización. Respecto a la propuesta de arrendar, se supone que antes tiene que adquirir el ayuntamiento, con lo que ello supone. Opina que hay otros modelos de gestión como el que se planteó al principio de legislatura del vivero de empresas en Avda. del Angel del que nada se ha hecho por desidia del equipo de gobierno. Respecto a acciones de promoción del comercio local, recuerda las iniciativas presentadas por Ciudadanos, que pueden ser objeto de estudio por parte del equipo de gobierno, recordando las de relevo generacional, segunda oportunidad, etc.

Inazio Uriartek adierazi du mozioak planteatzen duena kezkagarria dela, baina mozioko datuak ez dira zehatzak. Adierazi duenez, Eusko Jaurlaritzak merkataritzarako eman diren laguntzak pertsonala kontratatzeko dira, eta merkataritzako 200.000 euroko inbertsioak udal funtsen pentzura dira.

Inazio Uriarte indica que la situación que plantea la moción es preocupante aunque los datos de la moción no son exactos. Manifiesta que las ayudas del Gobierno Vasco que se han dado para el comercio son para la contratación de personal y los datos que da de inversión de 200.000 euros en comercio

Hori adierazi du Ibon Rodríguezi argitzeko aurreko puntuan hitz egin duenean egindako akatsa. Aitortzen du udazkenerako konpromisoa dagoela, Merkataritza Mahaia deitzekoa, eta betetzea espero du, prestakuntzako azterlan teknikoak amaitzear daudelako. Mozioak ez du zentzu handirik, udalak lonjak eskuratzea planteatzen baita beste batzuei prezio txikiagoan azpierrentamenduan emateko. Uste du administrazioaren aldetik ez duela oinarririk, eta zentzuzkoagoa da alokairurako diru-laguntzak ematea. Errentamendu-kontratuetan normalean azpierrentamendua onartzen ez dela gogorarazten du, eta teknikoki planteatzen dena, gainera, diru-laguntza da. Merkataritzarako diru-laguntza lerroak handitu ahal izango dira azaldu denagatik, Merkataritza Mahaian eztabaidatu edo adostu daitekeenari kalterik egin gabe.

son contra fondos municipales. Con esta intervención pretende aclarar a Ibon Rodríguez el error que ha manifestado en una intervención del punto anterior. Admite que existe el compromiso para este otoño de convocar la mesa de comercio y espera poder cumplirlo ya que están a punto de finalizar los estudios técnicos preparatorios. La moción no tiene mucho sentido ya que plantea que el ayuntamiento adquiera lonjas para subarrendar a terceros a un precio menor. Cree que administrativamente no tiene fundamente y es más razonable subvencionar alquileres. Recuerda que no se suele admitir el subarriendo normalmente en los contratos de arrendamiento y lo que se plantea técnicamente además es una subvención. Se podrán ampliar las líneas de subvencines al comercio por esta cuestión que se ha planteado sin perjucio de lo que se puede debatir o acordar en la Mesa de Comercio.

Ibon Rodríguezek aipamenagatiko txanda eskatu du, Inazio Uriartek hura aipatu duelako, baina alkateak ukatu egin dio aipamenagatiko txanda, EH Bilduko bozeramale gisa egin duela irizten diolako.

Ibon Rodríguez pide turno de alusiones porque el concejal Inazio Uriarte le ha citado personalmente pero el Alcalde le deniega el turno de alusiones porque entiende que se ha referido al mismo como portavoz de EH Bildu.

Eduardo Andradek adierazi du gobernu taldeak ez duela ezer egin Getxoko merkataritzaren alde. Gainera, beste aldeek gobernu taldearentzat planteatzen dutenak ez du balio; merkataritza gero eta okerrago dago. Kale bat martxan jartzeko proposamena da, eta aitortzen du ez zaiela laguntzen martxan dauden dendei. Horientzat beste ekimen eta laguntza batzuk daude. Horrez gain, uste du Amesti kalea dendaz beteko balitz ona izango litzatekeela egun dauden dendentzat ere. Amesti kalerako planteatu da,

Eduardo Andrade indica que no se ha hecho nada por el comercio de Getxo por parte del equipo de gobierno y además lo que otros grupos plantean para el equipo de gobierno no sirve y el comercio está cada día peor. La propuesta es para poner en marcha una calle y reconoce que no se apoya a los comercios que están funcionando ya que para ellos existen otras iniciativas y ayudas. Cree además que si se llenará la calle Amesti de comercios sería bueno también para los comercios actualmente existentes. Se ha planteado

proba pilotua egiteko, eta positiboa bada, udalerriko beste zonalde batzuetan zabaldu liteke. Enpresa mintegien irizpide bera da, non kasu bakoitza aztertzen den, ondoren mintegitik kanpora enpresa horiek jarraitzea badutela bermatu gabe. Amesti kaleko alokairuez galdetu dute, eta lortu duten batez bestekoa 17.800 eurokoa da hilean, hots, udalak bere gain har dezakeen beharrezko zenbatekoa nolakoa den ematen du. Uste du EAJk ez dakiela zer nahi duen merkataritzarako, baina bere neurriekin ez da merkataritza bultzatzen. Gobernu taldeak dio proposamena korapilatsua dela, eta aitortzen du hala dela, lan egitea dakarrelako berekin, eta hori ez zaio gustatzen gobernu taldeari. Getxoko merkataritza beherantz doa, horixe da errealitatea, eta alokairuaren formula zaila bada, gauza bera enpresa mintegietan, baina kudeatzen ari dira eta gastuak dakartzate. Hala ere, ez du uste arazorik sortzen ari denik, ezta azpierrentamendua arazoa denik ere. Mozioak zenbait jarraibide dituen ideia planteatzen du, ondoren garatu ahal izateko.

la calle Amesti por hacer una prueba piloto y si es positiva se podría extender a otras zonas del municipio. El criterio es el mismo que los viveros de empresa en el que se analiza cada caso sin que se garantice que después fuera del vivero puedan continuar esas empresas. Han preguntado por los alquileres en la calle Amesti y la media que han obtenido ha sido de 17.800 euros al mes, lo cual ya dimensiona el montante económico necesario que estima que es asumible por el ayuntamiento. Cree que el PNV no sabe lo que quiere para el comercio pero con sus medidas no se apoya el comercio. Dice el equipo de gobierno que la propuesta es enrevesada y reconoce que es cierto porque supone tener que trabajar y eso no le gusta al equipo de gobierno. La realidad es que el comercio está cayendo en Getxo y si la fórmula del alquiler es complicada sería lo mismo en los viveros de empresas pero estas se están gestionando y también suponen gastos pero no cree que están generando problemas como tampoco cree que el subarriendo sea un problema. La moción plantea una idea con unas directrices para que luego puedan desarrollarse.

Santiago Sainzek dio ez dutela mozioa babestuko kudeaketa ereduaren inguruko zalantzengatik eta uste dutelako haiek aurkezturiko proposamenak zuzenagoak direla.

Santiago Sainz dice que no van a apoyar la moción por dudas en el modelo de gestión y porque cree que las propuestas que ellos han presentado son más correctas.

Inazio Uriartek dio tokiko denda txikien kontrako korronteak ez diola eragiten soilik Getxori; hauekin du zerikusia: politika neoliberalak, BEZaren igoera, lan-merkatuaren araudi berria, ordutegi zabalagoak, etab. Hori guztia sustatu du PPk estatuan, baina Getxon esku hartzeko politika darama lokaletan

Inazio Uriarte indica que la corriente en contra del pequeño comercio local no solo afecta a Getxo y tiene que ver con políticas neoliberales, incremento del IVA, nueva regulación del mercado laboral, ampliación de horarios, etc., que el PP ha fomentado en el Estado pero que en Getxo, sin embargo, actúa con una política intervencionista sobre

azpierrentamendua bultzatuta. Uste du nolanahi ere diru-laguntzekin jardun beharko litzatekeela, edo neurri hertsatzaileekin. Ez du onartzea esatea ez dela ezer egiten merkataritzaren alde, ez delako egia, eta hala frogatzen dute diru-laguntzek, trebakuntza programek, elkartzeko laguntzek, etab. Interneten arriskua nabarmentzen du, saltoki handiei ere eragingo diena. Uste dute gobernu taldeari merkataritzaren gaineko politikagatik egiten dion kritika merkataritzaren kalterako dela.

locales para su subarriendo. Cree que en todo caso se debería actuar con subvenciones o, en su caso, medidas coercitivas. Rechaza que se diga que no se hace nada por el comercio por no ser cierto y la evidencia son las ayudas económicas, los programas de formación, las ayudas a que se asocien, etc. Destaca la amenaza de Internet que afectará también a las grandes superficies. Cree que la crítica al equipo de gobierno por la política sobre el comercio resta a la mejora del comercio.

Ibon Rodríguezek dio Ekonomia Sustapenak funtsean beste batzuen dirua kudeatzen duela. Ekimen gutxi ditu, eta ez dira batere eraginkorrak. Denden errealitatean ikusten da, eta eraginkortasuna baloratzeko zabalik dauden dendak badira, zinegotziak dimisioa eman beharko luke. Gogorarazten du PPk Madrilen jarri dituen neurri guztiak, Ogasuneko zinegotziak salatuak, EAJk bultzatu eta aplikatu dituela. Badago merkataritzako udal plangintza, baina dendak ixten dira, oso gutxi zabaltzen dira eta oso jarduera zehatzetan. 2016an adosturiko lonjei buruzko azterlana bizkortzeko eskatu du. Asko hitz egin da Merkataritza Mahaiaz, eta orain gobernu taldeak mahai berean batu ditu turismoa eta merkataritza. Horrek agerian uzten ditu jarduteko irizpideak; guztiak ez datoz bat, eta eztabaidatu beharko lirateke. Azkenik gobernu taldeak mozioaren kontra azaltzeko argudiorik eza kritikatu du.

Ibon Rodríguez indica que Promoción Económica fundamentalmente gestiona el dinero de otros. Tiene pocas iniciativas y con poca efectividad y eso se ve en la realidad del comercio y si el modelo para valorar la eficacia son los comercios abiertos, el concejal debería dimitir. Recuerda que todas las medidas del PP en Madrid, y que ha denunciado el concejal de Hacienda, el PNV las ha apoyado y aplicado. Existe una planificación municipal sobre el comercio pero se cierran tiendas y se abren muy pocas y en actividades muy concretas. Pide que se agilice el estudio de las lonjas acordado en 2016. Sobre la Mesa de Comercio se ha hablado mucho y ahora el equipo de gobierno ha unido en una misma mesa el turismo y el comercio, lo que evidencia los criterios con los que actúa, criterios que no todos comparten y que deberían de debatirse. Finaliza criticando la falta de argumentos del equipo de gobierno para oponerse a la moción.

Enrique Pradak dio proposamen ona eta baliagarria dela irizten diola, Merkataritza Mahaian aztertu behar dela, baina ezkor da Hondakinen Foroan gertatu dena ikusita.

Enrique Prada indica que la propuesta les parece bien, buena y válida y cree que debe de tratarse en la Mesa de Comercio pero es pesimista viendo lo ocurrido en el Foro de Residuos.

Eduardo Andradek adierazi du

Eduardo Andrade indica que es una

penagarria dela Ekonomia Sustapeneko zinegotzi arduraduna hain etsita egotea, eta horrek neurririk ez hartzera bultzatzen du. Ez dute planteatzen lokalak konparatzea, baina egin liteke udalak bere kudeaketarik ezagatik dituen gerakinekin. Mozioan zerbait egitea planteatzen da, eta zinegotziak neurri berrietan jartzen du uste osoa. Azkenik, gobernu taldearekin akordioen bidez lan egitea planteatzen du, hirigintzaren arloan egin duten moduan.

pena que el concejal responsable de Promoción Económica esté tan resignado y ello le incita a no tomar medidas. No plantean comprar locales aunque sería posible con los remanentes que tiene el ayuntamiento por su falta de gestión. La moción plantea hacer algo y el concejal fia todo a que ya saldrán nuevas medidas. Finalmente plantea trabajar con acuerdos con el equipo de gobierno como lo han hecho en el ámbito urbanístico.

Inazio Uriartek oposizioari eskatu dio sineste osoaz babestu ditzala gobernu taldeak abiarazitako neurriak, eta PPri ez dezala iraindu Getxoko merkataritza hain iritzi pobrea izanda. Tokiko merkataritza goraipatu du bere ezaugarri onak nabarmenduta, eta gobernu taldeak hura bultzatu eta baikortasuna transmititu nahi du.

Inazio Uriarte pide a la oposición que apoye con convicción las medidas que el equipo de gobierno implementa y pide al PP que no denoste al comercio de Getxo con su pobre opinión respecto al mismo. Elogia al comercio local destacando sus cualidades y la voluntad del equipo de gobierno en apoyarlo y en trasladar optimismo.

Enrique Pradak dio gobernu taldeak guztia egiten duela baina besteon iritziak baztertuta. Ez du ezer esan Merkataritza Mahaiaz; guztiek har dezakete parte hor, eta uste du horixe dela bidea eta ez eztabaida antzuak.

Enrique Prada indica que el equipo de gobierno hace todo pero sin contar con los demás. Nada ha dicho de la Mesa de Comercio donde todos pueden participar y aportar y cree que esa es la vía y no debates estériles.

Eduardo Andradek adierazi du ez duela uste eztabaida antzua izaten ari denik, zeren osoko bilkura baita udal talde bakoitzak bere iritzia emateko tokia, herritarrek talde bakoitzaren iritziaren berri izan dezaten. Gobernu taldeak merkataritzaren alde izan dituen ekimen guztiak babestu ditu PPk, eta gobernu taldeak aurkeztu dituen asko, gainera, PPren jarduketak eraginda gertatu dira. Berriz dio egiten ari denak ez duela balio eta zerbait gehiago egin behar dela merkataritza biziberritzeko. Azkenean esan du berak ez diola ospea kentzen merkataritzari, dendaria eta dendarien semea baita, eta

Eduardo Andrade opina que no cree que se esté dando un debate estéril ya que el Pleno es el lugar en el que se tiene que posicionar cada grupo municipal a fin de que la ciudadanía conozca la opinión de cada grupo. El PP ha apoyado todas las iniciativas del equipo de gobierno en favor del comercio y muchas además de las que ha presentado el equipo de gobierno han sido motivadas por actuaciones del PP. Insiste en que lo que se está haciendo no sirve y que hay que hacer algo más para revitalizar el comercio. Finaliza indicando que él no desacredita al comercio ya que es

kritikatu duena EAJren politika izan da, merkataritza arriskuan jartzen ari dena.

comerciante e hijo de comerciantes y lo que ha criticado es la política del PNV que está poniendo en peligro el comercio.

Mozioaren bozketa eginda, ezetsi egin da. Emaitza: 4 boto alde, PP; 12 boto kontra, PNV, PSE-EE, Ciudadanos; 8 abstentzio, GUK, EH Bildu.

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 4 votos a favor, PP; 12 votos en contra, PNV, PSE-EE, Ciudadanos; 8 abstenciones, GUK, EH Bildu.

Enrique Prada aretotik irten da.

Enrique Prada se ausenta de la sesión.

**169.- PP ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ERREKAGANEKO PABILOIAK ERAISTEA ETA PARKE PUBLIKOA SORTZEA.**

**169.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/EL DERRIBO DE LOS PABELLONES DE ERRKAGANE Y CREACIÓN DE UN PARQUE PÚBLICO.**

Eduardo Andradek ondorengo mozioa irakurri du:

Eduardo Andrade da lectura a la siguiente moción:

Udalak dagokion batzordean informaziorik eman ez digun arren, gobernu-taldea Romoko Gaztetxearen inguruko auzotarrekin bilerak egiten hasi dela jakin dugu, Gaztetxea eremu horretara eramateko lanen berri emateko asmoz.

Aunque el Ayuntamiento no nos ha informado en la correspondiente comisión, hemos podido conocer que el equipo de gobierno ha comenzado a reunirse con vecinos del entorno del Gaztetxe de Romo para informarles del inicio de los trabajos para devolver el Gaztetxe a esta zona.

Gogoan izanik pabiloi horiek mantentzeko Arenas Club pasealekua suntsitu zela, eta kontuan izanik 500.000 euro xahutu zirela hura berriztatzean eta obrak amaitu bitartean ezin zirela erabili, gertatutako suteak argi utzi du beste behin akatsa izan zela Errekaganeko pabiloiak mantentzea.

Recordando que el mantenimiento de los citados pabellones conllevó la destrucción del paseo Arenas Club, el despilfarro de los 500.000€ que supuso su renovación y la privación de su uso durante todo el tiempo que duraron las obras, su posterior incendio volvió a demostrar que fue un error mantener los pabellones de Errekagane

Ondo gogoratzen ditugu auzotarren kexak, Gaztetxeak auzoan eragiten zituen eragozpenen ondoriozkoak. Horiek horrela, Gobela ibaiko obrengatik Gaztetxea hustu zutenean,

Todos recordamos las quejas vecinales por las molestias que causaba el Gaztetxe en el barrio, su desalojo con motivo de las obras del río Gobela fue celebrado con ilusión por los vecinos

auzotarrek pozarren ospatu zuten.

del entorno,

Pabiloiak ez ziren mantendu behar izan, hobe zen pabiloiak eraistea, eta hala adierazi dute hainbat auzokidek behin baino gehiagotan.

Nunca se debieron mantener estos pabellones, su derribo era la mejor opción y así lo han manifestado en muchas ocasiones multitud de vecinos.

Getxoko Popular Udal Taldeak argi adierazi du bere jarrera beti gai honetan. Eremu horretako pabiloiak eraitsi eta espazioa berreskuratu behar dugu aisialdirako parke bat sortzeko, lorategiekin, familientzako eta adingabeentzako erabilera-eremu desberdinekin, adinekoentzako gimnasia-aparatuekin, eta gure txakurrak solte ibiltzeko zona batekin; izan ere, ingurumenarentzat onuragarria izateaz gain, Gobelako kiroldegirako osagarri bikaina izan daiteke.

El Grupo Municipal Popular de Getxo, siempre ha sido muy claro al respecto. En esta zona se deben derribar los pabellones y recuperar el espacio para crear un parque de ocio, con zonas ajardinadas, con diferentes usos para familias, menores y dotación de aparatos de gimnasia para mayores, o incluso reservar una zona para crear un parque para que nuestros perros puedan estar sueltos, porque además de ser beneficioso para el entorno, puede ser un complemento perfecto al Polideportivo Gobela.

Gainera, uste dugu eremu horretan bizi diren auzotarrentzat bidezkoa dela zona horretan parke hau sortzea, etxebizitza asko geratu direlako bi sistema orokorren artean, hau da, metroaren eta ibaiaren artean, harrapatuta.

Además, creemos que es de justicia para los vecinos de la zona, la creación de dicho parque en esta zona, porque hay multitud de viviendas que se hayan constreñidas y afectadas entre dos sistemas generales, como son el metro y el propio río.

Bestalde, parke hori eraikitzeak Arenas Club pasealekuari jarraipena ematea ekarriko luke; gainera, bat dator ibaiaren ertzetik doan pasealekua Zubilletaraino luzatzeko Alderdi Popularrak egin duen proposamenarekin, non ibai-parke handi bat eraiki nahi dugun.

Por otro lado, la creación de este parque supone la continuidad con el paseo del Arenas Club, y encaja con la propuesta del Partido Popular de prolongar el paseo por la orilla del río hasta hasta Zubilleta, donde pretendemos crear un gran parque fluvial.

Horregatik guztiagatik, osoko bilkurari ERABAKI PROPOSAMEN hau aurkezten diogu:

Por todo ello presentamos la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO al Pleno Municipal:

LEHENENGOA.- Errekaganeko pabiloien hondarrak behin betiko eraisteko.

PRIMERO.- Que se derribe definitivamente lo que resta de los pabellones de Errekagane.

BIGARRENA.- Zona horretan parke bat sortzeko aurretiazko azterlanak eta proiektua egin daitezela.

SEGUNDO.- Que se inicien los estudios previos y se realice el proyecto para la creación de un parque en dicha zona.

HIRUGARRENA.- Mozio hau udaleko hedabideetan jakinaraztea.

TERCERO.- Que se informe de esta moción en los medios de comunicación municipales.

Santiago Sainzek ordezteko zuzenketa transakzionala aurkeztu du. Irakurri egin du:

Santiago Sainz presenta una enmienda trasaccional de sustitución a la que da lectura:

*"LEHENA.- Parte hartzeko prozesua has dadila auzokideen artean, Errekaganeko pabiloiak hartzen dituen eremuan nahi duten erabilera erabakitzeko.*

*BIGARRENA.- Parte hartzeko prozesu horren emaitza jakinda, bideragarritasuna azter dadila eta, bideragarria bada, Getxoko Udalak gauzatu dezala.*

*HIRUGARRENA.- Mozio hau udalaren hedabideetan jakinaraz dadila."*

*"PRIMERA.- Que se inicie un proceso participativo entre los vecinos a fin de dilucidar el uso que desean para a zona que albergaba los pabellones de Errekagane.*

*SEGUNDA.- Que una vez se conozca el resultado del citado proceso partivipativo se estudie la viabilidad del mismo y, en caso de ser viable, el Ayuntamiento de Getxo proceda a acometerlo.*

*TERCERA.- Que se informe de esta moción en los medos de comunicación municipales."*

Eduardo Andradek ez du zuzenketa onartzen, ez duelako jasotzen pabiloiak eraistea.

Eduardo Andrade no admite la enmienda porque no incopora el derribo de los pabellones.

Oier Iturraldek dio argi dagoela PP ez dagoela gazteen autogestioaren alde. Nahiago ditu otzandutako gazteak eta horregatik egon da beti gaztetxearen aurka. Gelditzen dena eraitsi eta horren tokian parke bat egitea eskatzen dute. Ezezko botoa emango dute, konfiantza dutelako gaztetxeko gazteengan eta babesa erakutsiko diete hartzen dituzten erabakietan.

Oier Iturralde indica que está claro que el PP no esta a favor de la autogestión de los jóvenes. Está claro que prefiere jóvenes domesticados y por eso siempre han estado en contra del gaztetxe. Piden derribar lo que queda y en su lugar generar un parque. Votarán que no porque tienen confianza en los jóvenes del gaztetxe y van a apoyarles en las decisiones que adopten.

Paula Amievak esan du proposamenak errepikatzen duela PPk 2017ko apirilean aurkeztu zuena. Ez dute mozioaren alde egingo, eta uste sendoa dute gobernu taldearen eta gaztetxeko

Paula Amieva indica que esta propuesta repite la que el PP presentó en abril de 2017. No van a apoyar la moción y confían que las negociaciones que se están dando entre el equipo de gobierno y los jóvenes del gaztetxe

gazteen artean egiten ari diren negoziazioetan akordioak izango direla eta taldeek kudeaketarako tokiak izango dituztela. Era berean, irizpide bera defendatzen dute Nagusien Etxeko erabiltzaileentzat. Jarraitzen dute jakin barik non kokatuko lukeen PPk gaztetxea, eta ez dakite lurrean eraikitzeko zein aukera dagoen errekaren eta metroaren mugak kontuan izanda. Azkenean adierazi du ez dutela jarduketen denbora-aurreikuspenei buruzko informaziorik.

lleguen a acuerdos y que los colectivos tengan espacios de gestión como también defienden el mismo criterio para los usuarios de la Nagusien Etxea. Siguen sin saber dónde ubicaría el PP el gaztetxe y tampoco conocen cuál es la posibilidad edificatoria del terreno teniendo en cuenta las limitaciones del río y del metro. Finaliza indicando que carecen de información sobre las previsiones temporales de estas actuaciones.

Koldo Iturbek adierazi du antzeko mozioak aurkeztu direla, eta gaiari buruzko aurrekariak gogorarazi ditu: gaztetxea ukitzen duten Gobela erreka birmoldatzeko obrekin hasi ziren, ondoren gaztetxea hutsaraztea, ondoren sutea, zati bateko eraispena, aldi baterako kokalekua eta gaztetxea erabiltzeko akordioa lortzeko egiten ari den lana eraikin berria egindakoan. Akordio horretan, gazteen autogestioa eta lortuko den akordioa errespetatzea uztartu behar dira eta ingurunearekiko bizikidetza bermatu. Proiektua idazten ari da gazteen ekarpenarekin, eta gobernu taldeak eta EAJk bete egingo dituzte lortutako eta Legegintzaldiko Planean bildutako akordioak. Beraz, mozioaren kontrako botoa emango dute.

